



URDUÑAKO ARKUPEA SL ERAKUNDEKO MANTENTZE-LANETAKO 1. OFIZIALAREN LANPOSTUKO ALDI BATERAKO PREMIAK ESTALTZEKO LAN-POLTSAREN SORRERARAKO PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

LEHENENGOA.- DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honek Urduñako Arkupea SL sozietate publikoko mantentze-lanetako 1. ofizialaren kategoriako lan-kontratudun langileen aldi baterako premiak estaltzeko lan-poltsa sortzea dauka helburu. Urduñako Arkupea SL sozietateak, hain zuzen ere, mendekoak diren adinekoen egoitza eta eguneko zentroa kudeatzea du jarduera nagusi.

Kontratazioa egiteko orduan, honako hauexek hartuko dira kontuan: legeria, Urduñako Arkupea SL erakundeko aldi baterako lan-poltsen kudeaketari buruzko araudia eta Urduñako Arkupea SL erakundeko lan-kontratudun langileen lan-hitzarmena.

Mantentze-lanetako 1. ofizialaren lanpostuak honako ezaugarri hauek izango ditu: taldea: C1; lanpostu-mailako osagarria: 22; berariazko osagarria: 8.525,63 €; arduraldiaren araubidea: %10eko erabateko prestasuna eta, ordutegian, lanaldi zatitua dituen modalitatea.

BIGARRENA.- IZANGAIEN ESKAKIZUNAK

Ezohiko lan-poltsan onartuak izateko, izangaiek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen denean:

- A) Espainiako edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideren bateko nazionalitatea edukitzea edo, Europar Batasunak sinatutako eta Estatu espainolak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea ezarri behar duen estaturen bateko nazionala izatea eta gaztelaniaz behar bezala jakitea.
- B) 16 urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretirorako adina baino gehiago ez edukitzea.
- C) Mantentze-lanetako ofizialaren eginkizunen ohiko garapena eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez edukitzea.
- D) Diziplinazko espedientearen bidez estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko administrazioetik baztertuta ez egotea eta funtzio publikoak egiteko ezgaituta ez egotea.
- E) Honako familia profesional hauetako bateko II. LHko edo Goi Mailako Graduko titulazioa edukitzea: instalazioa eta mantentze-lanak, elektrizitatea eta elektronika, energia eta ura, eraikuntza eta obra zibila, garraioa eta ibilgailuak mantentzeko lanak.
- F) B gidabaimena edukitzea.

Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da titulazioak eta merezimenduak aurkezteko epean.

Aurrean adierazitako eskakizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharko dira, eta aldi baterako lan-kontratudun moduan kontratatua izan arte eutsi beharko zaie.

HIRUGARRENA.- MANTENTZE-LANETAKO 1. OFIZIALAREN LANPOSTUKO EGINKIZUNAK

Hona hemen lanpostu honetako eginkizun nagusiak:

Mantentze-lanak:

1. Urduñako udal-egoitzako instalazioak mantentze-plangintzaren arabera ikuskatzea eta kontrolatzea.
2. Oro har, egoitzako instalazioak aldi-aldi mantentzea: lorategiak, eraikinaren pintura, elektrizitatea...

3. Egunero, eraikineko, instalazioetako, altzarietako... konponketak egitea gorabeheren arabera.
4. Instalazioetako azpikontraten lana kontrolatzea eta ikuskatzea (UBS eta GKU, gasa, mikronela, ibilgailua, igogailuak, suteen aurkako prebentzio-sistema, galdarak, ur-iturriak, kafe-makina, ate automatikoak, ibiltarien kontrola..., besteak beste).
5. Instalazioetako ikuskapenak kontrolatzea, gainbegiratzea eta erregistratzea.
6. Instalazioetako agiriak artxibatzea (mantentze-ziurtagiriak...).
7. Legionellaren Prebentziorako Planaren kontrola, erregistroa nahiz jarraipena egitea eta arratoiak/intsektuak hiltzea.
8. Bere mailapeko gorabeherak konpontzea: zuzendaritzari proposatzea eta, hala badagokio, gremioekin harremanetan egotea.
9. Erakundeko Autobabeserako Planeko (larrialdietako) jarduketa-arduraduna izatea.
10. Telefonoz eta zuzenean prestasuna edukitzea, bere lanpostuarekin zerikusia daukan edozein gorabehera konpontzeko (prestasun-plusa ordainduko zaio).
11. Bere aurrekontu-sailak kudeatzea.
12. Aurrekontuak eskatzea eta erosketak egitea.
13. Zuzendaritzarekin eta taldearen gaineratikoarekin batzartzea, gorabeheretarako eta lan bateraturako planerako.
14. Bere lan-arloko hobekuntza-proposamenak eta txostenak egitea, zuzendaritzak eskatuta edo bere ekimenez.
15. Lanpostuko berezko beste eginkizun batzuk eta eskatutako prestakuntza egitea.

Garraioa:

1. Urduñako Arkupea erakundeko erabiltzaileak garraiatzea. Hain zuzen ere, eguneko zentroko mendekoak egunero goizez eta arratsaldean garraiatzea izango da eginkizun nagusia.
2. Beharrezkoa izanez gero, Urduñako Arkupea erakundeak emandako zerbitzuetako beste erabiltzaile batzuk garraiatzea (egoitza, eguneko arreta...).
3. Eskatutako gidabaimenaren arabera zehaztutako beste eginkizun batzuk garatzea.

LAUGARRENA.- ESKAINTZAN IZENA EMATEA

Interesa dutenek eman behar dute izena zehaztutako epean. Horretarako, eskabide-orria Urduñako Arkupea SL erakundeko bulegoetan (San Frantzisko auzoa 1 - 48460 Urduña, Bizkaia) aurkeztu besterik ez dute, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.

Eskabide-orria Urduñako Udalaren webgunean (www.urduna.com) eta Urduñako Arkupea SL erakundeko bulegoetan egongo da eskuragarri.

Izena emateko epea 2018/11/09an hasi eta 2018/11/19an (barne) amaituko da 14:00etan.

Eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzeko epea 2018/11/21ean (barne) amaituko da 14:00etan. Oinarri hauetako bigarren klausulan zehaztutako eskakizunen eta bosgarren klausularen arabera alegatutako merezimenduen egiaztatzearen kopia aurkezteko epea egongo da zabalik, eta 2018/11/21ean amaituko da 14:00etan.

BOSGARRENA.- BALIOETSI BEHARREKO MEREZIMENDUEN EGITURA ETA SAILKAPENA

Hautaketa-prozesua merezimenduak balioesteko fase bakar batean egituratuko da honako baremo honen arabera:

A) LAN-ESPERIENTZIA: gehienez ere, 20 puntu.

Emandako zerbitzuak lan egindako hilabeteko balioetsiko dira. Emandako zerbitzuen ziurtagirietan urtetan adierazitako epealdia hilabete bihurtuko da, urteak hamabi hilabete dituela kontuan hartuta, eta egunetan adierazitakoa hilabete bihurtuko da, hilabeteak hogeita hamar egun dituela kontuan hartuta.

Harreman juridikoa edonolakoa dela ere, administrazio publikoetan edo enpresa pribatuetan emandako zerbitzuak balioetsiko dira, arlo zibileko edo merkataritzako zerbitzuen errentamenduetarako kontratuak izan ezik:

- a) **0,20 puntu** deialdiaren helburu den kategoria profesionalean **osorik lan egindako hilabeteko** (mantentze-lanetako 1. ofiziala, mantentze-lanetako burua edo antzekoa).
- b) **0,15 puntu beheragoko kategorietan osorik lan egindako hilabeteko** (mantentze-lanetako laguntzailea/teknikaria edo antzekoa).
- c) **1 puntu B gidabaimenean 7 urteko edo hortik gorako antzintasuna edukitzeagatik.**
- d) **2 puntu** garraioan urtebeteko edo hortik gorako lan-esperientzia egiaztatua edukitzeagatik.

Garatutako lana justifikatzeko, erakunde publiko edo pribatu bakoitzean **lan egindako epealdiaren ziurtagiria** aurkeztuko da baliozko agiri bakar moduan, eta honako haxe azaldu beharko da bertan: kategoria, lanaldiaren ehunekoa eta lan egindako epealdia.

2018/10/31ra arte lan egindako egunak hartuko dira kontuan.

B) EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA: gehienez ere, 4 puntu.

1. hizkuntza-eskakizuna: 1 puntu
2. hizkuntza-eskakizuna: 2 puntu
3. hizkuntza-eskakizuna: 4 puntu

SEIGARRENA.- HAUTAKETA-BATZORDEA

Honako hauexek osatutako Hautaketa Batzordeak hautatuko ditu izangaiak:

- 1) Urduñako Arkupea udaleko egoitzako eta eguneko zentroko zuzendaria edo berak eskuordetutakoa.
- 2) Urduñederra SL erakundeko Enplegu eta Prestakuntza Arloko teknikaria edo berak eskuordetutakoa.
- 3) Udal-aparejadorea edo berak eskuordetutakoa.

Hautaketa Batzordeak behar besteko eskumena izango du, oinarriak eta, hala badagokio, deialdia interpretatzeko eta hautaketa-prozesu osoan sortutako zalantzak argitzeko, deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztian.

ZAZPIGARRENA.- HAUTAKETAREN EMAITZA ETA KONTRATAZIORAKO PROPOSAMENA

Prozesuaren emaitzak kontuan hartuta, Hautaketa Batzordeak Urduñako Arkupea SL sozietate publikoko mantentze-lanetako 1. ofizialaren lanposturako aldi baterako kontratazioetarako lan-poltsa osagarria eratuko dutenen poltsa proposatuko du, administrazio-organoak onartu dezan.

Berdinketarik egonez gero, honako irizpide hauek hurrenez hurren kontuan hartuta ezarriko da ordena:

1. Esperientziagatiko merezimenduen arloan puntu gehien lortu dituenaren alde.
2. Prestakuntzagatiko merezimenduen arloan puntu gehien lortu dituenaren alde.



3. Hala ere, berdinketak bere horretan badirau, zozketa egingo da. Hautaketa Batzordeak letra bat zozketatuko du, eta izangaiaren lehenengo abizenaren ordena alfabetikoaren arabera ordenatuko dira puntuazio berdinak.

**ESKABIDE-ORRIA - IMPRESO DE SOLICITD
ALDI BATERAKO LAN-POLTSA - BOLSA DE TRABAJO TEMPORAL:
MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA - OFICIAL MANTENIMIENTO
URDUÑAKO ARKUPEA SL**

Izena / <i>Nombre:</i>	Deiturak / <i>Apellidos:</i>
NAN / <i>DM:</i>	Jaiotza-data / <i>Fecha nacimiento:</i>
Helbidea / <i>Domicilio:</i>	
Udalerría / <i>Municipio:</i>	Posta-kodea / <i>Código Postal:</i>
Harremanetarako tel. / <i>Tel. contacto:</i>	Posta elektronikoa / <i>Correo electrónico:</i>

Data eta sinadura / *Fecha y Firma:* _____



IZANGAIEN ESKAKIZUNAK ETA MEREZIMENDUAK / REQUISITOS DE ACCESO Y MERITOS

- Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria
- NAN / DNI Beste agiri bat / Otro.....
- B GIDABAIMENA / CARNE CONDUCIR B
- Aurkeztutako merezimenduen zerrenda / Relación de méritos alegados

Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna / Perfil acreditado: _____

Lan-esperientzia / Experiencia Profesional:

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____
7. _____
8. _____

- Bai, Urduñako Arkupea sozietatean dagokion kategorian eman dut zerbitzua, eta aipatutako zerbitzuak ofizioz ziurtatu daitezela eskatzen dut. / Sí, he prestado servicios en la categoría correspondiente en la sociedad Urduñako Arkupea y solicito que me sea expedida de oficio la certificación de dichos servicios.
- Beheko sinatzaileak eskabide honetan eman dituen datuak benetakoak direla adierazten du, baita deialdiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela ere. Halaber, konpromisoa hartzen du eskaera honetan jarritako datu guztiak agirien bidez frogatzeko. / La persona abajo firmante declara que son ciertos los datos consignados y que reúne las condiciones exigidas en la convocatoria, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.

Data eta sinadura / Fecha y Firma _____